



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

OSASUNA

1. Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2
2. Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak 4
3. EAEn zehar GIBA/HIESA, CHa eta STIak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundeei zuzendutako dirulanguntzak 6
4. EAE-n gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak 8
5. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko diru-laguntzak 10
6. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak 12
7. 2019ko osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak 14
8. Osasunaren arloan diharduten erakunde profesionalentzako, irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako eta irabazi-asmorik gabeko osasun-espezialitateetako erakunde zientifikoentzako laguntzak, 2019an funtziona dezaten eta langileen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antola ditzaten 17
9. Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2018. eta 2019. urteetarako laguntzak 20



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita osasunari buruzko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2019ko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko apirilaren 30ekoa, 2019ko maiatzaren 20ko EHAA, 93. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902365e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena:

- 1. lerroa: «Osasuneko ikerketa-jarduera sustatzea»
EBAZPENA, 2019ko abenduaren 27koa, Osasuneko sailburuordearena, 2020ko urtarrilaren 16ko EHAA, 10. zk.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000175e.shtml>
- 2. lerroa: «Osasuneko ikerketa estrategikoa sustatzea»
EBAZPENA, 2019ko abenduaren 4koa, Osasuneko sailburuordearena, 2020ko urtarrilaren 10ko EHAA, 6. zk.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000072e.shtml>
- 3. lerroa: «Interes bereziko ekintza osagarriak»
EBAZPENA, 2019ko urriaren 9koa, Osasuneko sailburuordearena, 2019ko urriaren 23ko EHAA, 202. zk.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904903e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan adierazitako jarduketan azken helburua da pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatuz.

2019ko deialdiak hiru laguntza-ildo ditu osasun-sistemako ikerketa, I+G arloko belaunaldi-erreleboa eta RIS3 hazkundera indartzeko biozientziak-osasuna arloan, baina, horrez gain, proiektu sanitario integratuaren modalitate berri bat sartu du (osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko ildoaren barruan), ikerketa bateratua sustatzeko ikerketa sanitarioko hiru institutuen artean.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Eskaeren guztizko kopurua (1., 2. eta 3. lerroak): 160. Esleitutako proiektuen guztizko kopurua: 52

«Osasuneko ikerketa-jarduera sustatzea» izeneko 1. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 98.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 25, eta laguntzen lerro honen aurrekontuaren ia %25 bideratu da susperraldian dauden taldeen sustapenera.

«Osasuneko ikerketa estrategikoak sustatzea» izeneko 2. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 57.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 22

«Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 3. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 5.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 5.

Esleitutako 52 proiektuetatik 25etan, emakumeak ziren ikertzaile nagusiak (diruz lagundutako proiektuen %53,8), eta aurrekontuaren %44,7 bideratu da emakumeek gidatutako proiektuetara.

Baliozko eskabide guztietatik 11k ez zituzten betetzen deialdian eskatutako baldintzak edo hautagarritasun-irizpideren bat, 62 ez zituen baloratu Batzordeak eta, gainerako 87etatik, 35 ezin izan dira finantzatu aurrekontu-zuzkidurarik ez zegoelako. Erabilgarri zeuden funtsen %99,6 exekutatu da.

Hautatutako proiektuek, kalitate zientifiko altua edukitzeaz gain, inpaktu sozial handiko gai biomedikoak edo oro har osasun-arlokoak jorratzen dituzte, eta osasun-sistemaren jarduna nahiz herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko xedea dute. Proiektuek honako eremu hauek hartzen dituzte: diagnostikoa eta/edo pronostikoa; gaixotasunen bilakaerari eta/edo kontrolari lotutako faktoreak; hainbat gaixotasunen tratamendu terapeutikoa (neurodegeneratiboak, besteak beste); medikuntza pertsonalizaturako biomarkatzaileak eta teknologiak; gaixotasunen arrisku-faktoreen identifikazioa (ingurumenekoak barne); iragarpen-ereduak; telemonitorizazioari aplikatutako adimen artifiziala; eraginkortasunaren eta kostuaren ebaluazioa, eraginkortasuna, inpaktua edo esku-hartzeen ezarpenaren ebaluazioa; zahartzea; patologiei buruzko hainbat alderdi, hala nola minbizia, gaixotasun arraroak, gaixotasun neurodegeneratiboak, obesitatea eta diabetesa; gailu medikoak; medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua	35	52



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 3ko, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntza ekonomikoen deialdia egiten baita talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta arrisku eta kalteak prebenitu eta murrizteko proiektuak egiteko, bai eta jarduera-esparru horietan ohitura osasungarriak sustatzeko ere, 2019ko ekitaldian.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko uztailaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko uztailaren 18ko EHAA 136 zk.: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903493e.shtml>

Laguntzen zerrenda argitaratzea: EBAZPENA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuordearena, 2020ko apirilaren 21eko EHAA, 75. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001882e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko laguntzak
Honako hauei emango zaizkien laguntza ekonomikoak:

- EAEko toki-erakundeak, dela Adikzioen prebentzio komunitariorako talde teknikoak sortzeko edo mantentzeko, dela arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko programak eta esku-hartzeak garatzeko, dela Adikzioen tokiko planetan dauden jokabide osasungarriak sustatzeko. Plan horiek jarduketa egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatzen dute, onartuta egongo dira edo egiteko prozesuan, eta udalerriek banaka edo mankomunitate egin eta garatuko dituzte.
- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak, Adikzioen ondoriozko arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiten dituztenak, eta jarduera-eremu horretan ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Ekipo teknikoak sortzeko eta mantentzeko lerroa.

Neurria: Emakida-kopurua, toki-erakundeak. Adierazlea: 34.

- Arabako 4 udal eta Arabako Foru Aldundia
- Gipuzkoako 10 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 20 udal/mankomunitate



Kapitulu honen diru-zuzkidura 1.174.135 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 42,71 da (2.748.992,98 €).

- Adikzioen prebenitzeko komunitarioko programak garatzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.

43 programa, beste hainbeste toki-erakunderenak; ez da eskaerarik ezetsi.

- Arabako 3 udal
- Gipuzkoako 18 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 22 udal/mankomunitate

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 561.765 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabideen aurrekontuan jasotakoaren % 16,54 da (3.395.465 €).

- Arrisku eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.

32 entitateak izan dira onuradun, 67 proiektuekin. Entitate batzuek proiektu bat baino gehiago aurkeztu dituzte. Aurkeztutako proiektu guztiek jaso dute diru-laguntza.

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 882.500 €-koa izan zen. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 23 da (3.818.915 euro).

Bereziki aipatzen da deialdia oso berandu argitaratu dela, zuzendaritzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, eta atzerapenak egon direla emandako laguntzak ordaintzeko orduan; finantzaketa-falta hori dela eta, entitate onuradunek ezin izan dute, askotan, beren proiektua diseinatu, ezta, ondorioz, eskaera aurkeztu ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Toki-erakundeei emandako emakiden kopurua:		
II. kapitulua	35	34
III. kapitulua	45	43
Gizarte-ekimeneko erakundeen kopurua (IV. kapitulua):	40	32
Proiektuen kopurua (IV. kapitulua)	65	67



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEn zehar GIBA/HIESA, CHa eta STIak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundeei zuzendutako dirulanguntzak

2.- Araua

Agindua, 2019ko maiatzaren 29koa, Osasun sailburuarena; honen bidez, laguntzarako deia egiten zaie EAEn GIB/hiesa, C hepatitis eta sexu bidez transmititzen diren infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko maiatzaren 29koa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko ekainaren 14ko EHAA, 112. zk.: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902902e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko urriaren 3koa, Osasuneko sailburuordearena, 2019ko urriaren 11ko EHAA, 194. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904676e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Herri Administrazioek martxan jartzen dituztenak ezinbestekoak dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko ahalegin bateratu horretan laguntzeko eta birus eramaileen egoera hobetzeko.

Hona hemen laguntza horien jomugan daudenak:

- Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kontuan hartuta zenbaterainoko garrantzi epidemiologikoa duen giza-talde horrek gaur egun.
- GIBari dagokionez egoera zaurgarrian dauden beste giza-talde batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak eta prostituzioan lan egiten dutenak.
- GIBaren, CHaren eta STIen infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak
- GIBa duten pertsoneri babes psikologikoa eta soziala emateko proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hortaz, 300.000,00 €-ko diru-laguntza jaso dute hainbat proiektu eta jarduerak. Horien bitartez, erakundeek behar-beharrezkoa den lana bideratzen dute, Administrazioa ez baita heltzen zenbait giza-talderi babesa ematera eta horiei prebentzioan aurrera egiten laguntzera.

Dirulaguntza guztiaren %36a harreman homosexualak dituzten gizonei zuzendutako proiektuei bideratu da, %18a prostituzioan aritzen diren zuzendutako proiektuei, %12a droga injektatzaileei zuzendutakoei, %10a kanpotarrei zuzendutakoei, %12a diagnostiko berantiarra laguntzeko proiektuei eta %12a laguntza emozionala lantzen duten proiektuei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Diru laguntza jasotzen duten elkarte kopurua	16	17



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAE-n gaixoen kolektiboan eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira EAeko gaixoen eta haien familien kolektiboan bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak, eta laguntza horietarako deialdia iragartzen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko maiatzaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko ekainaren 4ko EHAA, 104. zk.: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902691e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko urriaren 11koa, Osasuneko sailburuordearena, 2019ko urriaren 23ko EHAA, 202. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904904e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboan eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea da diru-laguntzen leerro hauek duten helburu nagusia. Zehatzago esateko:

- Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboan eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzera bideratutako jarduerak, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzen eta autonomia areagotzeko.
- Gaixotasunen bat dutenen beharrian soziosanitarioak asetzen laguntzea eta horiek bideratzea, ikuspegi salubrista batetik, osasuna sustatzearen eta helburu komunitarioekin.
- Gaixoen eta haien familiek gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokieneri buruz duten ezagutzan eta informazioan sakontzea.
- Gaixotasunen bat duten pertsonen berdintasun- eta ekitate-ekin murriztea osasunean, eta genero-ikuspegia txertatzea.

Gaixoen elkarteak pertsona fisikoen taldeak dira, eta, horietan, patologia bera pairatzen duten pertsonak elkartzen dira. Halako elkarteek honako helburu hauek dituzte: dena delako gaixotasuna eta berai sendatzeko tratamenduak hobeto ezagutzeko lan egitea, gaixoen elkarri laguntzea, herritarrei gaixotasuna prebenitzeko argibideak ematea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko helburuek adierazle hauek hartu zituzten kontuan programaren ebaluazioa egiteko: 60 elkarte subentzionatu. Lortutako zenbakiak, aldiz, hauek izan ziren: 67 elkarte. Hortaz, aurrekontu-programaren aurreikuspenetako betetze-maila gaintu zen. Gainera, deialdiaren % 100 esleitu zen, 300.000 €ko zenbatekoarekin.

Hainbat patologia-mota dituzten paziente eta familiei zuzendutako jardueretarako diru-laguntzak eman dira. Hona hemen patologia:

- Minbizia
- Diabetesa
- Buru- eta portaera-nahasmenduak
- Nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmendua
- Elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Gaixoentzako eta familiartekoentzako autolaguntza- eta babes-taldeak
- Laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guzien bizi-kalitatea handitzeko.
- Talde-terapiak
- Pazienteentzako eta familiartekoentzako prestakuntza-hitzaldiak
- Gaixotasunen informazio eta sentsibilizazioa
- Informazio-gida espezifikoaren prestaketa

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarte subentzionatuak	60	67
Proiektu subentzionatuak	60	114



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 29a, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2019ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko deialdiko oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko tokian tokiko parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan garatzen diren osasuna sustatzeko jarduketak burutzeko

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko maiatzaren 29koa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko ekainaren 27ko EHAA, 121. zk.: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903169e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko urriaren 11koa, Osasuneko sailburuordearena, 2019ko urriaren 23ko EHAA, 202. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904905e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauen xedea da honako hauek finantzatzea 2019ko ekitaldian:

- a) PKPk sortzera eta/edo dinamizatzerara bideratutako jarduketak, osasuna sustatzeko ekintzak eta estrategiak tokian-tokian planifikatu eta garatzeko.
- b) Osasuna sustatzeko jarduketak, zeinek, helburu komunitarioak izanda, komunitatearen beharriaz, asmoei, arazoei edo bere interesekoak diren gaiei erantzuten baitiete eta PKPen esparruan garatzen baitira.

Parte-hartze komunitarioko prozesua, aurrerantzean PKP, egitura inklusibo eta partaidetzazko gisa definitzen da, eta komunitateko hainbat eragile biltzen ditu, hala nola, administrazioak, hainbat esparru edo sektore (hezkuntza, gizartea, osasuna, kultura, ekonomia...) eta herritarrak, gizarte-erakundeak barne, komunitatearen beharriaz, asmoei, arazoei edo bere interesekoak diren gaiei erantzuteko xedearekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko helburuek adierazle hauek hartu zituzten kontuan programaren ebaluazioa egiteko diruz lagundutako 90 proiektu. Lortutako zenbakiak, aldiz, hauek izan ziren diruz lagundutako 65 proiektu. Hortaz, aurrekontu-programaren aurreikuspenetako betetze-maila ez zen gaintu, proiektuei dagokienez.

Gainera, deialdiaren % 100 esleitu zen, 292.000 €ko zenbatekoarekin. Deialdi honetan hainbat aldaketa egin dira: programaren izena, laguntzak lortzeko betebeharrak eta proposatutako objektiboak. Honek, aurkeztutako eskaren eta subentzionatutako proiektuen murrizpena suposatu du.



Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Parte-hartze komunitaroko prozesuen sormena eta/edo dinamizazioa.
- Osasuna sustatzeko ekintzak tokiko parte-hartze prozesuetan priorizatuak.

Laburbilduz, bidalitako memorien ebaluazioan oinarrituz esan daiteke positiboak izan direla diru-laguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Proiektu subentzionatuak	90	65



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzak eta laguntza horien deialdia egiten, EAeko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzera bideratutako parte hartzeko proiektuak garatzeko 2019-2020 ikasturtean zehar

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko urriaren 2ko EHAA, 187. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904474e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Osasuneko sailburuordearena, 2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000231e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen helburua da toki-eremuko eta osasun-arlokoak ez diren gainerako eremuetako jarduketetan osasuna indartzea.

Laguntza horien helburua da proiektu hauek finantzatzea:

- a) Parte hartzeko proiektuak garatzea eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko, hiri-espazioek mugikortasun aktibo eta segururako eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.

Eskola-bidetzat joko dira ibilbide zehatz eta finkoak, aurrez ezarriak eta markatuak, eskola-umeek erabil ditzaketenak ikastetxeetako joan-etorriak modu aktiboan (oinez, gurpil-oholez, bizikletaz eta abar), seguruan eta autonomoan egiteko, eta, hala, espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzeko.

- b) Ikastetxeetako jolastokiak dinamizatzea eta/edo, ikaskuntza, jolasa, mugimendua eta kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeke gune inklusiboetan eraldatzera bideratutako parte hartzeko proiektuak garatzea, eskola-orduetan zein horietatik kanpo erabiltzeko, betiere oinarrituz harturik berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua (kultura, etnia, adina, sexua, aniztasun funtzionala, eta abar) eta ikasleei eta haien familien intereseei eta beharrezaneiei egokituak.

Proiektu horiek beharko dute:

- 1) Ikastetxeko ikasle guztien jolas-aukerak, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handitu.



- 2) Neskek jarduera fisikoa egitea berariaz sustatu, jarduera ezaren ratioa handiagoa baita kolektibo horretan.
- 3) Mugimendua eta jolas aktiboa sustatu ikasle helduenen edo bigarren hezkuntzako ikasleen artean, adin-tarte horretako sedentarismorako joera saiheste aldera.
- c) Jarduera fisikoa familian egitea bultzatzera bideratutako jarduerak sustatu, hala nola mendi- edo bizikleta-irteerak, ibilaldiak irristailuetan edo familian egiteko jolas-jarduerak, besteak beste.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza hauek urte anitzekoak dira, eta ikasturtearen iraupena dute, 2020ko ekainean bukatzen dira; beraz, ikastetxeek data horretarako egiaztatu beharko dute burutu dutela aurreztutako proiektua.

2019an, eskaerak aurrezteko epea zabaldu zen (106 eskari), horiei buruzko esleipen-ebazpena eman zen (27ri eman zitzaien laguntza), eta esleitutako kopuruaren %70a ordaindu zen (65.800€).

Honako hauek izan dira diruz lagundutako proiektu nagusiak:

- Proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa.
- Ikastetxearen inguruan eta jolas-tokian zer mugikortasun dagoen aztertzea.
- Solasaldiak, tailerrak edo komunikazio-kanpainak antolatzea.
- Behar den materiala eskuratzea.
- Mugikortasun aktiboa bultzatzen duten ikastetxeetako espazioak egokitzea.

2019an 2018-2019 ikasturteko deialdia bukatu da, justifikazioak aurreztu eta esleitutako %30 ordaindu ondoren (28.200€). Bidalitako memorien ebaluazioan oinarrituz esan daiteke positiboak izan direla diru-laguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Proiektu subentzionatuak	30	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2019ko osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperresteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko maiatzaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko ekainaren 14ko EHAA, 112. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902901e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko irailaren 26koa, Osasuneko sailburuordearena, 2019ko urriaren 14ko EHAA, 195. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904703e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da prestakuntza-planak egiteko bekak eta laguntzak emateko araubidea arautzea, bekak eta laguntzak emateko deialdia egitea, eta osasunaren arloan prestakuntza-planak egiteko beken eta laguntzen deialdia egitea, 2019an hasita.

Beka eta laguntza hauek emango dira:

- Atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak.
- Estatuko unibertsitate-zentroetan kompetentzia aurreratuak eskuratzeko prestakuntza-jarduerak egiteko bekak eta laguntzak, honako arlo hauetan: kudeaketa sanitarioa, Zainketa aringarriak, Osasun Publikoa, Familia eta Komunitateko Medikuntzaren garapena eta Integrazio asistentziala.

Prestakuntza-jarduerak graduondoko kategoria izan beharko dute (titulu ofizialak edo propioak), eta gutxienez 60 ECTS kredituko karga akademikoa izan beharko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 108.010 eurokoa izan zen (81.008 euro 2019ko aurrekontuaren kargura eta 27.002 euro 2020rako konpromiso-kredituei zegozkien)

Deialdia ebatzita, aurrekontuan jasotakotik 84.978,41 euro esleitu ziren.

Oro har, emandako banakako beken kopurua (44tik 22) izan da. Hala ere, modalitateen arabera, atzerriko egonaldiak murriztu egin dira (13tik 2), eta estatuko beketan egonkortzeko joerari eutsi zaio (26 ziren aurreikusita eta 20 eman dira).



2 beka eta laguntza eman ziren atzerriko zentroetako ikastaro eta egonaldietara joateko, eta 20 prestakuntza-jardueretarako, Estatuko zentroetan honako arlo hauetan gaitasunak eskuratzeko: osasun-kudeaketa, zainketa aringarriak, osasun publikoa, familia- eta komunitate-medikuntzaren garapena eta integrazio asistentziala.

Lurraldearen eta urtearen arabera, honako hau da banaketa:

Lurraldea	Onuradunen kop.	2019ko ekitaldia	2020ko ekitaldia	Guztira
Araba	6	8.360,25	2.786,75	11.147,00
Bizkaia	11	41.763,31	13.921,10	55.684,41
Gipuzkoa	5	13.610,25	4.536,75	18.147,00
Guztira	22	63.733,81	21.244,60	84.978,41

22 eskaera ukatu dira; horietatik 3 Arabari dagozkio, 10 Bizkaiari eta 9 Gipuzkoari, 2 uko egite eta 2 gora jotzeko errekurtsio. Azpimarratzekoa da 2 eskaerek ez betetzeko arrazoi bat baino gehiago dituztela

Ukatu ziren 22 eskaeretatik% 19,23 prestakuntza-jarduera 2019an ez hasteagatik izan ziren, eta% 3,85 prestakuntza egoitza-sistemaren bidez egiten aritzeagatik (2.d.),% 7,69 graduondoko ikastaroa ez izateagatik (1.1.a artikulua),% 7,69k ez du 60 ECTS kredituko gutxieneko karga akademikoa (1. artikulua),% 30,77 ez dago diruz lagun daitezkeen arloen barruan (1.c artikulua), 11,54k ez du 35 puntura iritsi eskaera (beharrezko gutxieneko puntuazioa). 6.3.d,% 3,85ek unibertsitate-zentroan ematen ez delako (1.1 artikulua) eta% 15,38k prozedura utzi dute.

Azken batean, ukatzeko arrazoiak 26 adierazleri dagozkie: 3 Arabari dagozkio, 10 Bizkaiari eta 13 Gipuzkoari.

Deialdia urte anitzekoa denez, jasotako azken justifikazioak oraindik ez dira nahikoak aurreikusitako maila lortu den ala ez egiaztatzeko. Nolanahi ere, aipatutako galdetegia aztertu ondoren, jasotako eskaeren% 100ek eraginkortasunari buruzko balorazio altua lortu dutela ikus daiteke.

Helburuak osorik bete ez badira ere, egindako aldaketek eskaerak eta emakidak handitzen eta hobetzen lagundu dutela uste da, eta, beraz, Beka eta Laguntzen programa hori helburuak lortzeko modurik eraginkorrena dela uste da, eta, azken batean, herritarrei eskainitako osasun-arreta hobetzea dakar.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Atzerriko zentroetan egonaldiak eta ikastaroak egiteko beken eta laguntzen kopurua.	13	2
Estatuko osasun-zentroetan osasun-kudeaketan, osasun publikoan, zainketa aringarrietan, familia- eta komunitate-medikuntzaren		



garapenean eta osasun-integrazioan gaitasun aurreratuak
eskuratzeko prestakuntza-jarduerak egiteko eman beharreko
beken eta laguntzen kopurua 26 20

Jasotako prestakuntza beren lanposturako eraginkorra
izan dela uste dutenen ehunekoa ehunekoa >(75) (1)

(1): ona izan da; izan ere, uste dugu 2019ko osasun-profesionalen prestakuntzarako laguntzen eta beken programa honen eskatzaileen gogobetetasun-inkestan jasotako erantzunak animatu egiten gaituela eta jarraitu beharreko bidea adierazten duela, osasun-arloko profesionalentzako beken eta laguntzen programa honek pazientearen laguntza-arloa hobetzen lagun dezan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasunaren arloan diharduten erakunde profesionalentzako, irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako eta irabazi-asmorik gabeko osasun-espezialitateetako erakunde zientifikoentzako laguntzak, 2019an funtziona dezaten eta langileen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antola ditzaten

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko urriaren 1ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira osasunaren esparruan diharduten profesionalen elkargoek, irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoek 2019ko funtzionamendurako eta langileen etengabeko prestakuntzako jardueren antolaketaarako laguntzak.

3.-Programaren araua, delaldia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2019ko urriaren 1ekoa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko urriaren 28ko EHAA, 205. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904965e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena: EBAZPENA, 2019ko abenduaren 23koa, Osasuneko sailburuordearena, 2020ko urtarrilaren 15ko EHAA, 9. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000154e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da honako hauen ondoriozko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia arautzea:

- Osasuneko profesionaleri zuzendutako jarduera zientifikoaren prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antolatzea 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan, bi modalitateekin:
 - Bilera zientifikoak antolatzea, hau da, biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak eta hitzaldiak.
 - Ikastaroak eta tailerrak antolatzea.
- Osasun-arloan lan egiten duten erakunde profesionalak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta egoitza ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten irabazi-asmorik gabeko osasun-erakunde zientifikoak eratzea edo jardunean jartzea, osasun-arloko profesionaleri prestakuntza eta eguneratze teknikoak emateko edo osasun-arloko ikerketa sustatzeko.

Laguntza horren helburua da etengabeko prestakuntzan eta osasun-ikerketan sakontzea, honako arlo hauetan: Osasun-kudeaketa, osasun publikoa, zainketa aringarriak, familia- eta komunitate-medikuntzaren garapena, familia-integrazioa, suizidioa prebenitzeko ildo estrategikoen gaineko jarduketa eta Euskadiko Plan Onkologikoaren garapena.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 79.409 eurokoa izan zen, honela banatuta:

- Bilkura zientifikoak antolatzeko laguntzak: 19.852 €
- Ikastaroak eta tailerrak antolatzeko laguntzak: 27.793 €
- Erakundeen eraketa eta funtzionamendurako laguntzak: 31.764 €

Nabarmendu behar da deialdi honetan 3.079 euroko doikuntza ekonomikoa egin behar izan zela ikastaroak eta tailerrak antolatzeko lerroaren eta 13.620 euroko bilera zientifikoaren soberakinari dagokionez, agindu horrek ahalbidetzen duen moduan, 2019an erakundeen antolaketa- eta funtzionamendu-lerroaren zuzkidura ekonomikoa handitu ahal izateko.

Honela geratu zen laguntza-lerroetarako emandako zenbatekoaren eta lurraldearen araberrako banaketa:

Lurraldea	Ikastaroak	Bilerak	Erakundeak	Guztira
Araba	6.440,00	0,00	7.245,00	13.685,00
Bizkaia	9.673,00	3.293,00	27.608,00	40.574,00
Gipuzkoa	8.601,00.	2.939,00	13.610,00	25.150,00
Guztira	24.714,00	6.232,00	48.463,00	79.409,00

Guztira 36 jarduera finantzatu dira: 24 ikastaro eta tailerretarako, 5 bilera zientifikoetarako eta 7 erakundeen antolaketa eta funtzionamendurako.

Lurraldea	ikastaroak	Bilerak	Erakundeak	Guztira
Araba	5	0	1	6
Bizkaia	9	3	3	15
Gipuzkoa	10	2	3	15
Guztira	24	5	7	36

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Bilera zientifikoak antolatzeko eman beharreko laguntzen kopurua	15	5
Diruz lagundu beharreko bilera zientifikoetara bertaratutako laguntzen kopurua	>3.000	560
Aurrez ikusitako ikastaroak eta tailerrak antolatzeko eman beharreko laguntzen kopurua	60	24



Diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan		
emandako orduak, guztira	>650	559
Diruz lagundutako prestakuntza		
eman zaien lanbideen kopurua	>5	8
Erakundeen eraketarako edo funtzionamendurako		
emandako laguntzen kopurua	9	7
Diruz lagundu beharreko jardueren artean helburuek		
Osasun sailaren lehentasunezko arloekin bat egiten badute,		
jarduera horien ehunekoa	>80	100
Emaizta aldekoa da, lortutako helburuen lorpen-mailaren arabera.		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2018. eta 2019. urteetarako laguntzak

2.- Araua

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa (EHAA 227. zk., 2013ko azaroaren 28a).

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen duen Dekretua (EHAA 220 zk., 2017ko azaroaren 17a).

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5koa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen Dekretua. (EHAA 29. Zk., 2019ko otsailaren 11)

AGINDUA, 2019ko martxoaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2018ko eta 2019ko laguntzak emateko deialdia egiten duena. (EHAA 53. zk., 2019ko martxoaren 15a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

Araua:

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, 2013ko azaroaren 28ko EHAA, 227. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/11/1305170e.shtml>

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, 2017ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/11/1705522e.shtml>

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5koa, 2019ko otsailaren 11ko EHAA, 29. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900707e.shtml>

Deialdia:

AGINDUA, 2019ko martxoaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, 2019ko martxoaren 15ko EHAA, 53. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/03/1901380e.shtml>

Diru-laguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/agindutako-tratamendu-medikuei-atxikidura-errazteko-laguntzak-2019ko-deialdia/web01-a2inform/eu/>



4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua da gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonen Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak bete ditzaten erraztea.

Agindutako tratamendu mediko bati atxikitzearen ondorioz ordaindu diren zenbatekoak ordainduko dira, finantzaketa publikoa behar duten tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarri dagokienez.

Deialdi honetako laguntzen subjektuak dira gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak, baldin eta 447/2013 Dekretuaren 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Baldintza horiek jarraian deskribatzen dira:

- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrak, baldin eta Gizarte Segurantzako pentsiodunak badira eta urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte, eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrek, baldin eta legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrak, baldin eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute laneko diru-sarreraren errenta osagarriaren modalitatean, eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Aurreko hiru ataletan aipatutako osasun-babeserako eta -arretarako eskubidearen titularren onuradunak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Espainian erregistratuta ez dauden eta egoiliar gisa baimenik ez duten atzerritarrak, Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan osasun-babeserako eta osasun-arretarako eskubidea dutenak, eta eskubide hori aitortzen duen Euskal Autonomia Erkidegoak emandako egiaztatgia dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

EAEko herritarrek aurkeztutako eskaeren %100 kudeatu dira. 2020ko maiatzean, %88,1ek aldeko ebazpena eman du, %7,9k kontrakoa, eta %4 aztertze/ebazteko daude.

2019ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzean, 5.161.121,39 euroko obligazioak onartu dira; hau da, aurrekontu eguneratuaren % 84,7 eta baimenaren % 96,6.

Aldeko ebazpenei esker, alde batetik, gaixotasun- eta beharizan-egoeran zeuden 75.400 pertsona inguru Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoari atxiki ahal izan zaizkio, eta, bestetik, agindutako tratamendu medikoen jarraipenik ez egitearen ondorio negatiboak saihestu ahal izan



dira; izan ere, tratamendu horien balorazio positiboa irizpide ekonomikoak ez ezik, beste irizpide batzuk ere kontuan hartuta egin behar da, hala nola gizarte-ongizatea, bizi-kalitatea, etab. Horregatik guztiagatik, ikusten da eragin positibo handia duela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurreikusitako eskaerak	110.400	85.795